

**AITA FRAI BARTOLOME SANTA TERESAREN  
IDAZLAN GUZTIAK**

Euskalkiz bizkaieraren eremukoak garenok aurtengo uztailaren 4an izugarrizko pozaldia hartu genuen. Aspaldian bizkaieraz argitaratu den libururik ederrenetarikoa aurkeztu ziguten Bizkaiko Aldundiaren Jauregiko ekitaldi aretoan bildu gineno. Harri eta zurtuta geratu ginen halako liburu mardula eskuartean ikustean.

Oihartzun izugarria izan zuen, bestalde, komunikabideetan, guztiek aho batez txalotu zituztela liburu hori argitaratzen parte hartu duten erakundeak eta, bereziki, liburu eder hori prestatzen aritutako Julen Urkiza eta Luis Baraiazarra karmeldar ikerlariak.

Benetan merezi izan du erakunde ezberdinen artean burutu izan den lan erraldoi horrek. Gutxitan argitaratzen da, gaur egun, halako liburu mardulik. Argi dago Frai Bartolome Santa Teresaren idazlanen argitalpen kritiko horretan prestatzaileek arazo handiak gainditu dituztela, ez baita liburu hori ahuntzaren gauerdiko eztula. Edizio kritiko hori sakontasun handiz eta aparteko arduraz burututa ageri zaigu.

Lehen eta behin, beraz, zorionak eman nahi dizkiet argitalpena gauzatzeko lanetan parte hartu duten erakundeei, hots, *Karmel Sorta* euskal bildumako arduradunei, Euskaltzaindiari,